

# **BANDOA**

Herritar guztioi jakinarazten dizuet datorren urteko zerga eta tasetan kuotaren murrizketak edo bonifikazioak izateko, 2010eko otsailaren 12rarte Larraulgo Udaletxean dagokion eskaera burutu beharko duzuela.

## **HOBARI EDO BONIFIKAZIOAK**

### **1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA**

#### **a) Famili Ugarien hobaria**

Kuota osoaren % 50 eko hobaria dago. Hobaria familia ugaria izaera duten subjektu pasiboek aplikatuko zaie, hobaria eskatu duten aurreko zergaldian familia ugariaren nortasuna badute eta dagokion zergaldian izaera hori mantenduko dutela egiaztatzen badute. Hobaria jasotzeko eskubidea galdu egingo da, familia unitateko kideren bat ohiko bizilekuaz gain beste ondasun higiezin baten jabe denean. Hobariak urte jakin baterako bakarrik balio du.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Familia ugari izaera egiaztatzen duen agiria.
- Familia unitateko kide guztien NAN fotokopia.
- Familia unitatea osatzen duen kide bakoitzaren erroldatze ziurtagiria.
- Familia unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Familia unitatearen kide bakoitzak dituen ondasun higieziinei buruz Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako ziurtagiria.

**b) Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinak.** Kuota osoaren % 50eko hobaria edukiko dute.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Instalazioa egiaztatzen duen agiria. (Udaletxeko zerbitzu teknikoek ikuskapena burutuko lukete).

### **2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**

#### **a) Ibilgailu historikoen hobaria.**

25 urteetako antzintasuna duten ibilgailuak. Kuota osoaren % 50 eko hobaria edukiko dute.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ibilgailuaren zirkulazio baimena

Larraulen, 2010 urteko urtarrilaren 19an

ALKATEAK